

JANGELAKO FUNTZIONAMENDURAKO ARAUTEGIA

SARRERA

Ondoren jasotzen diren arauak bi helburu nagusi dituzte:

- Ikasleak jangelan dauden bitartean bizikidetza, osasun eta garbitasun oinarrizko arauak betetzea.
- Otorduak eta zaintzak irauten duten bitartean (12:30-14:30) izena emanda duten ikasleak Ikastolaren erantzukizunpean daudela ziurtatzea.

ARAUTEGIA

1. Ikasle guztiak ikastolako irteera ordutik 5 minutu, gehienera, izango dituzte jantokira sartzeko. DBHkoek gehienez 10 minutu izango dituzte.
2. Bazkal aurretik eskuak garbitu behar dituzte. Ondoren, zuzenean bere lekuetan eseriko dira.
3. Ikasleei ondorengo kopurua zerbitzatuko zaie:

JANARI KOPURUAK



LEHENENGO PLATERAK	2-5 urte	6-12 urte	13-16 urte	Helduak
Arroza	1 L / 5	1 L / 5	1 L / 4,5	1 L / 4,5
Kremak eta sopak	1 L / 4,5	1 L / 4	1 L / 3	1 L / 3
Lekaleak	1 L / 4,5	1 L / 4	1 L / 3	1 L / 3
Pasta tomatearekin	1 L / 4,25	1 L / 3,75	1 L / 3	1 L / 3
Barazkiak	1 L / 4,5	1 L / 4	1 L / 3	1 L / 3
BIGARREN PLATERAK	2-5 urte	6-12 urte	13-16 urte	Helduak
Albondigak	4 u.	5 u.	6 u.	6 u.
Kroketak	3 u.	4 u.	5 u.	5 u.
Enpanadillak	2 u.	3 u.	3 u.	4 u.
Solomo (60gr)	1 u.	1,5 u.	1,5 u.	2 u.
Gisatuak	1 L / 4,5	1 L / 4,5	1 L / 3,5	1 L / 3
Hanburgesak (80 gr)	1 u.	1,5 u.	2 u.	3 u.
Oilasko Izterra (200-220 gr)	1 u.	1 u.	1 u.	1,5 u.
Urdaiazpiko freskoa (80 gr)	1 u.	1,5 u.	2 u.	2,5 u.
Arraina (100 gr)	1 u.	1 u.	1,5 u.	2 u.
Biribilkia (80 gr)	1 u.	1,5 u.	2 u.	2,5 u.
San Jakobo (120 r)	1 u.	1 u.	2 u.	2 u.
Tortilla	1/8	1/6	1/4	1/4
Xerra (100 gr)	1 u.	1 u.	1 u.	1,5 u.
Oilasko bularra (60 gr)	1 u.	1,5 u.	2 u.	3 u.
Saltxitxak	2,5 u.	3 u.	4 u.	4 u.
Kaneloiak	1,5 u.	2 u.	2,5 u.	3 u.
POSTREAK	2-5 urte	6-12 urte	13-16 urte	Helduak
Jogurta	1 u.	1 u.	1 u.	1 u.
Flana eta natillak	1 u.	1 u.	1 u.	1 u.
Edangarria	1 u.	1 u.	1 u.	1 u.
Petit-Suisse	1,5 u.	1,5 u.	1,5 u.	2 u.
Fruta	1 u.	1 u.	1 u.	1 u.
GARNIZIOAK ETA ENTSALADAK	2-5 urte	6-12 urte	13-16 urte	Helduak
Entsalada	20 gr	30 gr	35 gr	60 gr
Patatak	20 gr	30 gr	30 gr	30 gr
Limoia	1 u. / 8	1 u. / 8	1 u. / 8	1 u. / 4
Maionesa	1 L / 50	1 L / 50	1 L / 50	1 L / 50
Purea, piperrak	1 L / 30	1 L / 30	1 L / 10	1 L / 10
Saltsak	1 L / 30	1 L / 30	1 L / 30	1 L / 20

*1L / 5 = litro / pertsona
* u. = unitatea
* gr = gramo
*u. / 8 = unitate / pertsonak

** sobera badago eta aurrekoak ongi jan baditu errepika daiteke

4. Beraien izena jarrita duen nezeser edo poltsatxo batean hortzetako eskuila eta pasta (HHkoek hortzetako pasta ez) ekarri dezakete. Jangelan, ikasle bakoitzak leku bat izango du bere nezeser edo poltsatxoa uzteko.
5. Ikasle bakoitzak ezpain zapi bat ekarri behar du izena jarrita, jangelan ez baita paperezko ezpain zapiak banatuko. Komuneko papera ezingo da ezpain zapi bezala erabili. HH-ko ikasleen kasuan ezpain-zapiak mantalaren poltsikoari josita egon behar du. Astelehenetan ekarri eta ostiraletan garbitzeko etxera eramango dute.
6. Bazkal ostean eskuak eta hortzak garbitzea komeni da.
7. Ikasleak iritsi ahala esertzen joango dira.
8. Sukaldean langileak bakarrik sartuko dira. Zerbait eskatu behar izanez gero begiraleei eskatuko zaie.
9. Bazkaltzeko garaian giroa lasaia izan dadin gutxieneko isiltasuna izan beharko da.
10. Bazkaria itxurak zainduz egingo dute, tresneria ongi erabiliz (koilara, sardexka eta labana ondo erabiltzen ikasiz), mahaia txukun mantenduz, bere tokian ongi eserita egonda, jateko ohitura onak bereganatuz. LH-ko lehen etapetan, etxean labanarekin praktikatzea gomendatzen da.
11. Gorputza osasuntsu mantentzeko ezinbestekoa da denetik jatea.
12. Orotarik jaten ikasi behar da eta horretarako etxeko laguntza eskatzen da. Plater bakoitzetik, gutxienez ezarritako minimoa jan behar da. Lehenengo platera jarri ondoren, 20 minutuko tartean dena jaten ez badu ere bigarrena zerbitzatuko zaio. Modu berean jokatuko da bigarrenarekin eta, postrea jaten ez badu, 10 minutura erretiratuko zaio.
13. Jolasera zein etxeko lanak egitera denak elkarrekin irtengo dira. Honetarako izendatuak dauden espazioak errespetatuko dituzte, besterik erabili gabe. Espazio hauen berri jantokian idatziz izango dute jarrita.
14. Espazio hauetan ere oinarrizko elkarbizitza arauak bete beharko dituzte.
15. Bazkal ondoren DBHko ikasleek DBH-DBHO eraikinaren barruko eremuan egongo dira 14:25 arte. DBH3 eta 4 mailako ikasleek, etxeko baimena ekarriz gero, irteteko aukera izango dute, baina tarte horretan ezingo dituzte ikastolako instalazioak erabili.
16. Arrazoiak arrazoi, ikasleren batek egunen batean Ikastolako eremutik atera beharrik izango balu, gurasoen eskaera idatzita ekarri beharko du. Begiraleak ziurtatu behar du gurasoen baimena dagoela.
17. Izena emanda dagoen ikasleak egunen batean ezin badu etorri, familiak jakinarazi behar du idazkaritzan. **Abisatzeko epea, beranduenik, egunean bertan goizeko 9ak baino lehen izango da.**
18. Aldez aurretik abisatu gabeko ez bertaratze kasuetan jangelako arduradunak familiari deituko dio.
19. Ikasleek ezin dituzte ez sakeleko telefonorik, ez smartwatch ordulariak, ez musika entzuteko tresnarik ezta antzekorik ere (MP3, MP4...) erabili jangelan dauden bitartean. Erabiliz gero, begiraleek egun batez jasoko dute.
20. Eskolaz kanpoko ekintzetara joaten diren ikasleak elkarrekin irtengo dira. Horretarako, ikasleek legezko tutoreak sinatutako ohar bat ekarri beharko dute, zein egun eta orduetan irten behar duten adieraziz.

21. Jangelako ordutegian, 12:15/12:30-14:30ak bitartean, familiak ezin du beren seme-alabengana joan. Zerbaitengatik horretarako beharrik balego, ahal dela, begiraleei aurrez jakinaraziko zaie. HH-ko ikasleen kasuan, ezin dira 13:30ak baino lehenago haurrak jaso, kasu bereziren bat ez bada (medikua, gaixotasuna...)
22. Ikaslearen dieta bereziaren berri emango zaio jangelako enpresari. E-mail bidez ikaslearen izen-abizenak eta behar duen dieta berezia zein den adieraziko zaizkio. Sendagilearen agiria aurkeztu beharko da lehen egunetan. Agiri hau aldaketak dauden bakoitzeko aurkeztu beharko da.
23. Arauak behin eta berriz errespetatzen ez dituen ikaslearen jarrera hobetzen saiatuko gara elkarrizketaren bitartez; era berean, familia jakinaren gainean jarriko ditugu; hala eta guztiz ere, jarrera aldatzen ez badu, diziplinazko neurria ezarriko zaio.

JANGELAKO ARAUTEGIAREN ARAU-HAUSTEAK ETA ONDORIOAK

(Jangelan ere Ikastolako barne araudiaren, zuzentzeko jokabideak atala egokitua, erabiliko dugu).

Ikastolako Barne Araudia abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuan dago oinarritua; dekretu horrek Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideak eta betebeharrak biltzen ditu.

Jangelako arautegiaren arau-hauste jokabideak hiru eratako dira: jokabide desegokiak, bizikidetzaren aurkakoak eta bizikidetzari kalte larria eragiten dizkietenak:

- **Jokabide desegokiak**: Arautegiak jasotzen dituen oinarritzko arauekin bat ez datozen jokabideak dira; gertatuaren intentsitatea larria ez den bitartean dekretuak dionaren arabera (30. artikulua).

Horrela laburbil daitezke jokabide desegokiak:

- ✓ puntualtasun eza sarreran
- ✓ irteteko orduak ez errespetatzea
- ✓ justifikatu gabeko ez bertaratzea,
- ✓ jarrera desegokia janarekin, beste ikasleekin eta begiraleekin
- ✓ errespetu falta beste ikasleekin eta begiraleekin
- ✓ jangelako altzarien eta bertan dagoen materialaren zainketa eza eta erabilpen ez-zuzena
- ✓ jangelan dauden bitartean sakeleko telefonoa, MP3, MP4, Smartwatch ordulariak edota antzeko tresnak erabiltzea
- ✓ begiraleen lana eta jangelako funtzionamendua eragozte.

- **Bizikidetzaren aurkako jokabideak** (31. artikulua):

Jokabide hauek jantokiaren funtzionamendua larri eragozten dute, ikasleei eta begiraleei begira.

Ondokoak dira: jokabide desegokiak hiru aldiz errepikatzea hiruhileko bakoitzeko, eta desegokietan aipatu direnak era larrian gertatzen direnean.

- Bizikidetzari kalte larria eragiten dizkiotenak (32. artikulua):

Jokabide hauek jantokiaren funtzionamendua oso larri eragozten dute, ikasleei eta begiraleei begira.

Ondokoak dira: bizikidetzaren aurkakoak hiru aldiz errepikatzea hiruhileko bakoitzeko, eta desegokietan aipatu direnak era oso larrian gertatzen direnean.

ZUZENAK EZ DIREN JOKABIDEAK ZUZENTZEKO PROZEDURA

Jantokian gertatzen diren arau-haustek idatziz jasoko ditu begiraleak eta jantokiko arduradunari emango dizkio.

Intzidentzia edozein motatakoa izanda ere, arduradunak ikaslearen ikastolako Ikasketaburuari jakinaraziko dio. Honek edo tutoreak ere (larritasunaren arabera) gertatuaz ikaslearekin hitz egingo du eta familiarekin harremanetan jarriko da behar izanez gero.

Hartuko diren neurriak ondokoak izango dira:

Desegokia bada ikasleari gertatutakoaz hausnarketa egitea eskatuko zaio. Honetaz gain, har daitezkeen neurri zuzentzaileen artean hauek daude:

- ✓ molestatu eta kasu egiten ez badu bere ikaskideengandik banatzea
- ✓ beraiek zikindutakoa jasotzea
- ✓ garbitzea edo erratza pasatzea
- ✓ puskatutako materiala berri ekartzea eta antzekoak
- ✓ antzeko besteak

- Bizikidetzaren aurkako bada ikastolako ordezkariak familiari biltzeko deia egingo dio.

Har daitezkeen neurri zuzentzaileen artean desegokietan kasuan aipatutakoez gain, jangelara joateko eskubidea behin behineko etetea ere badago (Dekretuaren 35.artikulua).

- Bizikidetzari kalte larria eragiten diona bada ikastolako ordezkariak familiari biltzeko deia egingo dio.

Har daitezkeen neurri zuzentzaileen artean aurreko bi kasuetan aipatutakoez gain, jangelara joateko eskubidea ikasturtea bukatu arte etetea ere badago (Dekretuaren 36.artikulua).